KORRIDORE EKOLOGIKOAK

Euskal Autonomia Erkidegoan korridore ekologikoen sare bat ezartzearen helburu nagusia Red Natura 2000 sarearen konexio eta koherentzia ekologikoa sustatzea da eta, era horretan, eskualde mailan, zatituta egon litezkeen habitatak eta espezieak barne dituzten Sarearen guneen arteko konexioa sustatu daiteke.

Aipatutako helburuari heltzeko, zegozkien muin-guneak hautatu ziren, adierazitako arazoek kaltetutako Red Natura 2000 sarearen guneen artean.

Muin eta guneen arteko konektoreak diseinatzeko, xedeko espezieak mugitzeko merkeenak ziren ibilbide linealak kalkulatu ziren (konektibitaterik handieneko ibilbideak edo muin-guneen arteko paisaiaren iragazkortasuna).

Espezieak mugitu ahal izateko, lortutako ibilbide merkeenei dagokienez, zabalera aldakorreko bandak mugatu ziren eta horiei muinaren eta guneen arteko lotura korridoreak deritze.

Lotura korridoreak zeharkatzen dituzten sektore garrantzitsuenak (barne dituzten xedeko habitaten zabalerarengatik), horietatik bereizi ziren eta muin eta gunen arteko lotura eremuak izendatu zitzaien. Horrenbestez, lotura eremu hauek muin-guneen arteko eskalako bitarteko guneei dagozkie.


Muin-guneen, korridoreen eta gainontzeko lotura eremuen inguru moteltzeko tapoi zonaldeak ezarri ziren, lurralde matrizean eragin zitezkeen inpaktu negatiboei aurre egiteko (“ertz efektuak”). Horrenbestez, moteltze eremuak ezarri ziren.

Aurreko elementuak definitu ondoren, loturarako interesgarriak ziren ibai-ibilbideak hautatu ziren, Sarearen koherentziaren alde egiten zuten elementu lineal gisa.

Azkenik, aurretik definitutako elementuetan kokatutako degradatutako eremuak mugatu egin ziren zaharberritze ekologikoko eremu gisa.

GeoEuskadi guneak korridore ekologikoekin lotutako informazioaren zati handia eskaintzen du, hainbat geruzetan egituratuta. Horrez gain, bisorean ezarritako gainontzeko informazio geruzekin elkarri eragin ahal izango da.

Gehiago jakiteko: Corredores ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi / Eusko Jaurlaritza, Gobierno Vasco, 2005. 154 p.




Color	Elementos estructurales		
	Espacios-núcleo a conectar		Red de conservación interconectada
	Áreas de Enlace	Corredores Ecológicos	
	Corredores de Enlace		
	Áreas de Restauración Ecológica		
	Áreas de Amortiguación		
	Tramos fluviales de especial interés conector		
	Matriz territorial		


Esquema estructural de la Red de Corredores Ecológicos de la C.A.E.

Korridore ekologikoen kontzeptu eskema nahiko erraza da. Hala ere, praktikara eramatea aurrekoa baino konplexuagoa da, mota ezberdineko azpiegiturek, hirigintza plangintzak eta banakako edo zenbait kolektiboren interesek arazoak sor ditzaketelako, benetako diseinua egiterakoan, ezartzerakoan eta haren iraunkortasuna definitzerakoan, elementu ekonomikoen eta sozialen multzoari dagokionez.

Iturria: Corredores ecológicos de la Comunidad Autónoma de Euskadi: Documento de Síntesis / Eusko Jaurlaritza, Gobierno Vasco, 2005. 31 o.



Korridore ekologikoak + Lurralde Historikoen mugak Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco; geoEuskadi.



Ortoargazkia 2015+korridore ekologikoak. Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco, geoEuskadi.

EAEko Korridore Ekologikoen barne sartutako zaharberritze ekologikoko eremuen artean Laminoria izeneko lur gaineko meategi ustiapenarena aurkitzen da, Arraia-Maeztu udalerrian kokatuta. Ustiapena Arabako zabalena da eta ustiaketa plan betetzen doan heinean, jardun duen ingurua derrigorrez zaharberritu behar du.